




1962ko LEHENENGO KOMUNIUA



Gaur egunian makiña bat fotografixa eta bideo ataraten dostegu umiai. Jaixoten diran momentutik edozein aitzakixa aprobetxaiten dogu euren irudixa egoerarik desbardiñenetan jasoteko: kalian, etxian, itsasuan, mendixan, oporretan, jaixetan; erropa dotorienarekin edo bape erropo barik; ospakizun baterako disfrazauta edo karnaballetarako mozorrotuta. Garai batian etzan horretarako hainbeste aukerarik izaten. Aberrats-ete batzuetan izan ezik, ez eguen argazki-makiñarik eta fotografo profesionalen

estudixotara fan bihar izaten zan okasiño seiñalauren bat etorrenian. Edo, bestela, San Migeletan eta Korpustietan herrira inguraketan ziran argazkilari anbulantien dekoraduen aurrian tente-tente jarri eta erretratuak ataraten oskuen, atzian Pariseko Eiffel Torria edo Sevillako Giraldua agerketan zala.

Baegozen, baiña, talde haundixetan ataratako fotografixak be: Santa Ageda edo Gabon-batzeiak, futbol-txapelketak eta dotriña-eguneko jaixak egitten ziranian, esate baterako. Noizian behin eskoletara be etorten ziran fotografiuak, ikasliak bakarran edo taldian erretrataiterra. Urteroko fotografixia komunio-egunekua izaten zan, oraintxe letxe; jaunartzeiaren ondoren, urte batzuetan parrokiako klaustuaren kanpoko aldetik egin izan ziran argazkixok; gerora berdura-plazan atara zittuain, oraingo Gazte-lekuan.

Komuniorako mutikuak mariñero eta neskak zuriz jaztiarena 1955-1960 aldera zabaldu zan. Aurretik jazten ziran bana-ka batzuk, baiña lujo haundixegixa zan familixa gehixenentzat. Berdura-plazan ataratako argazki hau 1962kua danez, txantixuartzoz moldautako itsas-armada osua agiri da bertan. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue:

Laugarren illaran: Joxe Mari **Ituarte**, Joxe Mari **Anduaga**, Karlos **Ugarte**, Eloi **Roa**, Alberto **Plazaola**, Joxe Mari **Odrizola**, Santi **Moreno**, Jabier **Ugarte**, Andres **Zubiagirre**, Luis Mari **Aranburu**, Migel Anjel **Zabarte**, Pedro Mari **Ibarrondo**, Esteban **Telleria**, Iñaxio **Agirre**, Anton **Azpiazu** eta X. X.

Hirugarren illaran: Jabier **Ugarte**, Iñaki **Aranburu**, Jabier **Agirre**, Fermin **Palacios**, Benjamin **Pico**, Nestor **Arregi**, Fernando **Arza**, Luis **Olariaga**, Joxe Luis **Maiztegi**, (X) **Hermida**, Iñaki **Zabala** eta Felix **Iriondo**.

Bigarren illaran: Iñaki **Kortabarria**, Joxe **Zurutuza**, X. X., Xalbador **Urzelai**, Joxe Mari **Kortabarria**, X. X., Juan **A. Gomez**, X. X., Joxe **A. Zubia** eta Iñaki **Agirre**.

Lehenengo illaran: Joxe Mari **Plazaola**, Marzelino **Madina**, X. X., Juanito **Etxeberria**, Juan Mari **Irizar**, Karlos **Kortabarria**, X. X., Juanito **Irazabal**, Karmelo **Castañeda** eta Julian **Romano**.

J. E.

Fotografixa Jose Luis Plazaolak atara eben, Agustina Azkonak itxi dosku eta argibidiak Agustina berararenak eta Karlos Ugarterenak dira.

**GAS PROPANO ETA GAS NATURALAREN
INSTALAZIOAK
BEROGINTZA ETA MANTENIMENDUA
OROKORREAN**

Zubillaga auzoa, 74. D. Pabilioia OÑATI
Tfnoa: 78 02 65. Faxa: 78 00 33

INGENIARITZA. PROIEKTU ETA INSTALAKUNTZAK

JEGASsa